

TXIPIROI BIZIAREN KILIKILIA EZTARRIAN BEHERA

Ohartua eta sinistezale, ohitura zaharrei atxikia, aberatsa da gure herria eguneroko bizimoduari dagozkion uste eta eta jardune-tan.

Juanitok, aspaldiko urteetan betiko atse-denean lo datzan arrantzaleak, ohitura bitxi bat zuen: aborinaz harrapatzen zuen lehen txipiroi ttikia, bizirik, irestea. Urtero egiten zuen, sasoi honetan, garai honetantxe bil-tzen bait dira txipiroi ttikiak "praileen hondar-

tza" inguratzen duten arroketara babes bila. Sinetsirik baitzeukan, horrela eginez gero, uda guztian suertea izango zuela lagun eta zuela egun batean ere otarrea hutsik etxera-tuko. Ekintza oso azkarra izaten omen zen, moluskkoa itsas sakonetatik arrantzalearen estomakako barrunbe beltzera igarotzen zela apenas konturatu zedin. Deskuido txiki batek oker handia ekarri ziezaiokeen. Ez omen da oso atsegina txipiroiaren garroek, txikiak izanik ere, gangailari itxeki eta zintzu-rra ixtea.

Juanito ugari izan omen ziren, duela hiru hamarkada besterik ez, horrelako ekintze-tan sinesten zutenak eta, egun bakar bate-an, berrehun dozenatik gora zefalopodo ere harrapatzen zituztenak.

Ugariak bait ziren orduan eta denboral-dia neurritz gorakoa zenean orain entzuten den esaldia aipatzen omen zen: "txipiroi urte, elur urte". Metereologia aldakorrari, bi-zitza eta ondasunen euskarri, arrantzale fa-milietan batez ere, horrelako aztarnen bidez igarri nahi zioten, nahiz eta gaur egun guret-zat harrigarrieta erlaziogabeak gertatu.

Juanitoren andreak, Joxepak, Jaizubiko "Konke" (Junkera) baserrikoak, Hondarribi-ko jatetxeetan bere tintan serbitzen ziren txi-piroirik goxoenak prestatzearen fama zuen.


Egun batez, sukaldari nagusi eta etxe-

koandreen errezeta jatorren biltzaile zen Jose Castillo Hermandadera ("Remendadia" portuarrakentzat) hurbildu zen eta formula berexi haren sekretu bat deskubritu zuen. Joxepak, saltsan baino lehen, oilo koipetan sartzen zituen. Konbinazio trebea, baserriko eta itsasoko gaiak nahasirik, eta nik gomen-datzen dudana. Ez da erraza lortzen oilo koi-pea, baina aukeran dugu antzararena, baita potezkoa ere, txit lagungarri ona sukaldarit-zan.

Garai hartan maiz agertzen zen "Kofra-dian" (horra beste deitura bat, gaur ere era-bilia) Jurgi Oteiza, espazioaren okupagari-tasuna demostratu beharrez buru-belarri ari zena. Ardo botila, objektu ukigarria ez-ezik, okupatzen zuen espazioa zen batez ere, okupaketaren bidez sortzen zuen hutsa.

Perikok, erdi edukazioz, erdi burlati, en-tzuten zituen haren predikuak, eta egun ba-tean honela esan zion Joxepari: "Gaur gaue-an txipiroiak jar itzazu afaritako eta Jorgeri "luma" guztiak (txipiroiaren barne-hezur edo maskor kartilagotsua) emaitziaz azpil ba-tean, tintarekin". Ustekabea ustekabez, or-duantxe lehertu zen artista jenialaren bizita-sun sutua, sortu ninduenaren erantzun adarjolea jasotzen zuelarik: "Jan ezazu, Jor-ge, lumek inguratzen duten espazioa, eta nik jango ditut txipiroiak".

Juan Jose Lapitz



Txipiroia eta luma